

PASAIAKO BADIA BIZIBERRITZEKO GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN PLANETIK DONOSTIAKO UDALA KANPOAN UTZI IZANARI BURUZKO KONTROL MOZIOA

Josu Mirena Ruizek, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua oinarri, honako MOZIO hau aurkezten du, Pasaiako badia biziberritzeko Gipuzkoako Foru Aldundiren planetik Donostiako Udala kanpoan utzi izana dela-eta, Osoko Bilkuran azter dadin. Mozio hau Pertsonen Batzordean 2016ko abenduaren 12ko bilkuran egindako interpelazioaren ondorio da.

JUSTIFIKAZIOA

Egun hauetan, komunikabideei esker, Pasaiako Badia biziberritzeko Gipuzkoako Foru Aldundiak bi milioi euroko dirulaguntzak banatuko dituela jakin dugu. Laguntza hauen hartzaileak badian zerikusia duten udalak dira, Donostiakoa izan ezik. Gure harridurarako, Donostiako Udala plangintza honetatik kanpo geratu da. Pasaiako Badian beharrak handiak dira, eta Europatik Foru Aldundiak jaso duen porrotaren ondoren (diru-laguntza eza), hauek areagotu egingo dira: Donostia albo batera uzteak ez du sustatzen instituzio guztien elkarlana. Pasaiako badiaren biziberritzeak denon apustua izan beharko luke.

Alkateak batzordean aitzakiak erabili zituen erantzuteko (" Komunikabideek diru-laguntzei buruz atera duten notizia ez da berria..."). Hori dela eta, behean sinatzen duen zinegotziak honako mozio hau aurkezten du.

KONTROL MOZIOA

Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio, eragile guztiekin batera, Pasaiako badia biziberritzeko prozesuan era aktiboan lan egin dezala, hain zuzen ere Gipuzkoako Foru Aldundiak Donostia dagokion neurrian kontuan izan dezan.

Donostian 2016ko abenduaren 15an

Josu Mirena Ruiz Martin
EH Bildu udal taldeko zinegotzia